


ELMER



FITXA TEKNIKOA

Elmer. David McKee (1989). Itzulpena: Aiora Jaka. Klis-klasikoak. Alberdania-Erein-Igela. 2012

Liburuaren aurkezpena

Elmer elefantea ortzadarra bezain koloretsua da. Hori dela eta, bere taldeko elefanteek barre egiten dute haren inguruan dabilzanean. Besteek bezala elefante-koloreko azala balu, inork ez luke barrerik egingo, eta horrek hobeto sentiaraziko luke Elmer, ezta? Besteen berdina bilakatu nahi du Elmerrek kosta lain kosta. Baina berdinketa honek ez ditu ondorio atseginak...

Nola kontatu

- Irakurketaren aurretik, istorioa kontatu ikasleekin batera ilustrazioak aurrean.
- Irakurketaren bidez, baieztatu ikasleek egin dituzten aurreikuspenak.
- Zein da Elmerren arazoa?
- Arazoa al da besteen alaitasuna piztea?

Proposamenak bideratzen

- Hausnarketak sortuko dira liburu honen inguruan.
- Denek dugu bereizten gaituen zerbait.
- Zein da gure berezitasuna?
- Gure berezitasunak besteei zer sortzen die?

Proposamenak zehazten

- Ikasleek kontakizunak burutuko dituzte ilustrazioak bistan.
- Zertan zara berezia, desberdin?
- Zerbait oso ondo egiten duzu? Eta oso gaizki? Kontatu eta idatzi irakaslearekin batera...